

362 –HEOCaren ildo metodologikoei jarraikiz ikasmaterialak sortzen

Eskarne Lopetegi Zalakain – HABE. Donostia.
Esther Isasa Gaskue – HABE. Donostia.

Kontuan hartzekoa da, irakaskuntzan ezer berritu nahi bada, besteak beste, berrikuntza horiek ikasgelako lanerako proposamenetan mamitu beharko direla, irakasleengan berrikuntzako asmo horiek errotzeko; eta, curriculum berria ezarri ahal izateko, behar diren irakasleen prestakuntza-programei laguntzeko.

HEOC dokumentuaren argitalpenak ekarritako berrikuntzak ikasmaterialetara egokitu beharrari erantzun nahi dio ikastaroak.

Ikasgela, Irakasbilen (www.irakasbil.eus > NIRE IKASTAROAK)

Matrikula egin ostean, atariko NIRE IKASTAROAK sailera jo, eta dagozkizun **erabiltzaile-izena** eta **pasahitza** idatzi, matrikulatutako ikastaroan sartzeko.

Helburu orokorrak

HEOCaren oinarriak A1, A2, B1, B2 eta C1 mailetako ikasmaterialetan aplikatzeko irizpideak finkatzea.

Helburu operatiboak

- 1** *Ikasbil* atarian, euskaltegi homologatu baten sekuentzia didaktikoetan eta Primeran! materialean argitara emandako sekuentzia didaktikoen azterketa egitea.
- 2** Edozein mailatako ikasmateriala, curriculumaren oinarriekin bat datorren ikusteko txeketzeko zerronda osatzea.
- 3** Ekintza komunikatibo bat ardatz duten sekuentzia didaktikoak aztertu eta ondorioak ateratzea.
- 4** Nork bere euskaltegian duen ikasmateriala curriculumaren printzipioen argitara baloratu, hausnartu eta ondorioak ateratzea.
- 5** Nork bere euskaltegian, bere mailari dagokion eta erabiltzen duen ikasmaterialen artean jarduera batzuk aukeratzea; eta, aukeraketarako arrazoiak eman ondoren, HABEra bidaltzea

(jarduera gramatikal bat, lexikoarekin lotutako bat eta lau trebetasunen lanketa bideratzen duen jarduera bat).

Edukiak

- 1** Parte-hartzaileek bidalitako jardueren azterketatik ateratako ondorioak taldean azaldu eta hausnartzea. (Ordubete)
- 2** Ikasmaterial eredu desberdinak aurkeztu (Arian, Aula...etab.) eta materiala aztertzeko adierazle-zerrenda osatzea. (Lau ordu)
- 3** *Primeran!*, *Bagoaz!* eta *Jon eta Jone* jarduerak dituzten egiturak aurkeztu eta horien gainean hausnarketa egitea. (Bi ordu)
- 4** Jarduera jakin batzuk (aurretik aztertutakoak edo erabat berriak direnak) ikusitako egitura batera eramatea. (Bi ordu)
- 5** Egindako lanaren balorazioa egin eta azken ondorioak ateratzea. (Ordubete)

Metodologia

Aurretik egin beharreko lan bat dago: Ikasmaterial jakin batzuk aukeratu eta bidaltzea eskatuko diegu ikastaroan matrikulatu direnei, ikastaroaren abiapuntu izan daitezen; eduki asko material horien azterketatik aterako dira. (Jarduera burutzeko instrukzioak jakinaraziko zaizkie.)

Ikastaroak erabat praktikoa izan nahi du, parte-hartzaileek euskaltegietan dituzten ikasmaterialak aztertu eta hobetzeko tresnak eskura ditzaten. Taldeka lan egingo dugu eta mailaka (A1etik C1era bitarteko mailak), talde bakoitzean euskaltegi ezberdinetako parte-hartzaileak daudela ziurtatuz.

Aukera moduan, ikastaroan zehar ikusitakoa aplikatu eta jarduerarik bidali nahi izatera, IKASTENen bidez egingo dugu.

Ebaluazioa

Ikasleek prozesua hasten duten egunetik amaitzen duten arte **ebaluazio etengabea** eta **segidakoa** eginez neurtzen da ikasitakoa zenbateraino lortu den. Horrela, hezitzailea heziketa-ekintza osoan ikasleek burutu duten prozesua ezagutzeko, aurreikusteko eta egiaztatzeko moduan da. Ikasketari bakoitzaren abiapuntua ezagutzeko, ebaluazio-ariketa batekin emango zaio hasiera ikastaroari. Hortik aurrera, ebaluazio jarraitua izango da, ariketa praktikoetan oinarritua.

. *Zer eta nola*

Ebaluazio etengabea ikastaroaren plangintzan (lan-egitasmoan) proposatutako jardueri buruzko lanetan oinarrituta burutzen da, baita ikastaroan izandako parte-hartzetik / jarraipenetik abiatuta ere.

Jarduerak proposatutako xede-helburuen lorpenari buruzko iritzien arabera neurtzen dira, eta balorazioak era honetara burutzen:

- . **A** (*Oso jarduera ona*, eskuratutako ezagutzei berrikuntzak eta originaltasuna eransten die.)
- . **B** (*Jarduera ona*, proposatutako helburuak kalitatez landu direla adierazten du.)
- . **C** (Jarduera zuzena.)

- . **D** (Proposatutako helburuak *gainditu ez izana* adierazten du.)
- . **E** (Proposatutako helburua erdiesten *parte hartu ez izana* adierazten du.)

Ikastaroa gainditzeko beharrezkoa da: **1** Ikasgelan egin beharko diren jardueretatik gutxienez % 75 burutu izana, eta horietako bakoitzean gutxienez C kalifikazioa lortzea. **2** Eta aurrez aurreko ikastaroan, gainera, ordu-kopuruaren % 80an bertan egotea.

- . Helburu operatiboak lortu diren baloratzeko, ikasle bakoitzak ondoren zehaztuko den/diren ataza(k) egin beharko d(it)u.

Helburu operatiboak	Atazak
1 Parte-hartzaileek bidalitako jardueren azterketatik ateratako ondorioak taldean azaldu eta hausnartzea.	Nork bere euskaltegian, bere mailari dagokion eta erabiltzen duen ikasmaterialen artean jarduera batzuk aukeratu eta aukeraketarako arrazoiak eman ondoren, HABEra bidali (jarduera gramatikal bat, lexikoarekin lotutako bat eta lau trebetasunen lanketa bideratzen duen jarduera bat).
2 Ikasmaterial eredu desberdinak aurkeztu eta materiala aztertzeko adierazle-zerrenda osatzea.	Adierazle-zerrenda bat elkarrekin osatu.
3 <i>Primeran!</i> , <i>Bagoaz!</i> eta <i>Jon eta Jone</i> jarduerak dituzten egiturak aurkeztu eta horien gainean hausnarketa egitea.	Aztertutako ikasmaterialen ezaugarriak antzeman eta zein ikastereduri erantzuten dioten antzeman.
4 Jarduera jakin batzuk (aurretik aztertutakoak edo erabat berriak direnak) ikusitako egitura batera eramatea.	Jarduera jakin batzuk (aurretik aztertutakoak edo erabat berriak direnak) aukeratutako egitura eta ikasteredu batera moldatu.
5 Egindako lanaren balorazioa egin eta azken ondorioak ateratzea.	Balorazio-orria bete.

Oinarrizko bliografia

Gonzalez de Txabarri Miranda, Joxe Joan; Elosegi Arregi, Lourdes; Agirre Aranburu, Hasier; Larramendi Muxika, Aitziber; Maiz Aginaga, Agurtzane eta **Gonzalez de Txabarri Miranda, Luis Mari**. 2015. *Helduen Euskalduntzearen Oinarrizko Curriculum (HEOC)*. HABE: Donostia. — [HEOC digitala](#)

Maidier Barandiaran. 2016. [Primeran! ikasmaterialaren gaineko IRAKASBIL atariko bideoa](#)

AEK-Elhuyar. 2016. [Primeran! ikasmaterialaren gaineko power point aurkezpena \(AEK-Elhuyar\)](#)

Lopetegi Zalakain, Eskarne. 2015. "[Jon eta Jone irratsaioaren lanketa didaktikoa IKASBIL atarian](#)", *Hizpide* 87: 88-101 or.

Lopetegi, Eskarne. 2015. "[Bagoaz!, A1 eta A2 mailetarako ikasmaterialak IKASBIL atarian](#)", *Hizpide* 86: 81-91 or.